

Konkista-istorioak



Gure gorputzetako zauri-marretatik abiatuta, gure lurralderik hurbilekoenaren mapa bat sortuko dugu.

Helburuak

- Amaia Molineten obrara eta prozesuetara hurbiltzea.
- Argazkia adierazpen eta dokumentazio tresna gisa lantzea.
- Gure gorputzetatik abiatuta, proposamen estetiko bat sortzea.
- Alderdi emozionaletik gure eguneroko lurraldeaz gogoeta egitea.

Aipamenak

Mapamundistas-en artistari elkarrizketa: <http://www.unavarra.es/cultura/programacion/exposiciones/vestibulo-de-el-sario?contentId=237333>

Arte cartográfico, arte con mapas - Cuaderno de Cultura Científica: <https://culturacientifica.com/2015/11/04/arte-cartografico-arte-con-mapas/>

Cartografía y arte: la historia de un amor correspondido: <https://www.geografiainfinita.com/2017/01/cartografia-y-arte-la-historia-de-un-amor-correspondido/>

Universo de Emociones - Mapeaketa emozionaleko proiektua: <http://www.palaugea.com/portfolio/universo-de-emociones/>

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. *La conquista* ikusten dugu eta gure gorputzeko zer markak konkista-istorio bat gorde dezaketzen pentsatzen dugu. Gutxienez pertsona bakoitzeko bat.
2. 3naka edo 4naka marka horien argazki bat egiten dugu.

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. 3 edo 4ko talde horietan beretan, eskolako eta jostalekuko planoak aztertzen ditugu. Eskolatik hurbileko ingurune publikoetara ere zabaldu dezakegu. Google Maps erabil daiteke, edo geure argazkiak egitera atera gaitezke, hainbat online artxibotan bilatu...
2. Bildutako materialarekin mapa bakar bat sortzen dugu non "konkista-istorioren" bat egon daitekeen espazioak agertuko diren (adibideak: parkeko bankua gurea da, arratsaldero, 18:00etatik 19:00etara, pipak jatera eta gure sekretuak elkarri kontatzera gelditzen garelako; zuhaitz horren azpian, muxu bat eman zidaten; eskolako komun honetan, nire adiskiderik onena ezagutu nuen...). Lehenengo saioan egindako argazkiak integratu beharko ditugu, erabilera grafikoa edo metaforikoa emanaz. Interbenitu, moztu, margotu, tolestu... daitezke.

3. Mapak istorioak deskribatzeko testua eta legenda izan ditzake, baina proposamen horietatik bat bera ere ez da nahitaezkoa.

Erabil daitezkeen formatuak:

- Collage forman, euskarri zurrun baten gainean.
- Eskuorri forman, fotokopiagarria, zuri-beltzak landuta.

Ondorioak eta lerro irekiak

1. Azken lana tamainaz handia bada, mapako lekuri garrantzitsuetan jarriko dugu, azalpenen bat eginda. Hainbat orduz edo egunbetez uzten dugu, eta gero, jaso.
2. Azken lana eskuorri bat bada, kopiak egin eta mapako lekuri garrantzitsuetan banatzen dugu.
3. Ikasgelan eztabaida bat irekitzen dugu proiektuan landutako gaien inguruan.